

HITZAU RRE

BRANKA sortu da ; eta etorkizun ezezagunaren itsasoan barrena abiatu.

Alperrik sortu ote ? Gazterik hilko beharbada ? Ez dakigu guk sortzailleok horiek erantzuten.

BRANKA zer asmotan sortu dugun, ordea, geuk erantzun dezakegu ongienik ; eta egin egingo dugu garbiki ondoko lerro hauen bidez.

BRANKA Euskal Herri'ko seme izanik, euskaldun gizonaren zerbitzutan sortu da : hauxe da bere xede nagusia.

Euskalduntasuna gizatasunaren aurpegi bat baizik ez da. Horregatik Euskal Herrian gizatasuna euskalduna da ; morroinkeria, berriz, erdalduna. BRANKA'k, beraz, gizatasuna eta egia gure herrian zerbitzatu nahirik, euskaldun nahi du izan eta euskaltzale ; eta ezin zitekean bestelakoa izan.

Kupidarik gabe, eta siñeste zahar askoren kontra ez gutxitan, Euskal Herri'ko egia nabarmentzen eta mitoen muiña salatzen saiatuko gera. Ideia-jorra eta argi-egite zail huntan, argitzea eta euskaldunen laguntzaille gertatzea dukegu gure arrakasta eta sari bakarra.

Gure herriaren kinka gaistoa hurbildik ezagutu eta pairatu dugu BRANKA-ren sortzailleok. Izanaz eta nahiaz bat izanik ere, Iparraldean eta Hegoaldean zapaldurik aurkitu dugu Euskal Herria, erresuma arrotzen menpean suntsitzen ari. Herri-hiltzearen lan okaztagarri hortan, gure aldameneko erresuma zapaltzaille horiek dira aspaldidanik errudun nagusi, ez da dudarik. Baiña Euskal Herri'ko burgesak ere, beren herrikideei baiña aisa usuago beren poltsikuei begiratu, erresuma etsai horien laguntzaille gertatu dira. Haiak eta hauek beren etorkizuna finkatu dute artean ; herria ohartu baita. Orain ba dakigu zein diran Euskal Herriaren etsaiak. Orain ba dakigu zein izan ditezkeen, eta zein ez, gure herria bere eskubide guziak lortzera eraman dezakean bide bakarra.

Intelektualok ere bidea zein dan ikusi dugu ; eta gure herriarekin bat egitea erabaki dugu, eta norat ari geran argitzen laguntzea.

Askatasunerako burruka latz eta gogorrean abiatu, BRANKA'k bere abertzaletasuna oihukatu nahi du arrenik. BRANKA abertzalea da osoki ; hau da : Euzkadi'ko erresuma libro eta euskaldun bat nahi du Euskal Herriarentzat. BRANKA'k ez du beste salbabiderik ikusten gure herriarentzat. Euzkadi'ko erresuma berri hori nahi duten euskaldun guziak eta euskal erakunde guziak, gure lankide ditugu.

Baiña ez bat ere gure nagusi edo agintari : BRANKA'k egia biltatu eta euskaldun intelektualen aldizkari izan nahi duen ezkerro, argi eta garbi esan nahi du bere buruaren jabe dala, eta ez dala nehoen menpeko. Neholazko dogmakeria harrotan edo lizifriña hertsitan

ez erortzeko, hain zuzen, nahi-ta-etzko baldintza iruditzen zaigu gure gaintasun hori.

Bestetik ere, mundua eta gauzak oro aurreruntz doaz, eta eten gabe aldatzen dira. Ez dago aldakaitzik ezer; eta egia bera ere, horrengatik, gauzen arabera aldatzen baita, dogmakeria guziak, errotik beretik, egiatik urruntzen dira. Hori dala-ta, hasieratik, elizkeria eta ideien geldikeria guzien etsai aitortu nahi du BRANKA'k bere burua.

Hildo hortan berean, manikeismoa lerrabide labaiña da gizonarentzat, problemak askatzeko bide erraz eta eroso bat eskeintzen diolako. Baiña manikeismoa ez da sekula izan egia, eta ez izango ere; zeren-eta gauzak eta fenomenoak bikuntasun ximple baten alderdiak baiño aisa zaillago eta nahasiago izaten baitira. Gizon „prestuak” alderdi batean, eta „gaistoak” beste btean banatzerik ez dago; ezta ere ideia „xuxenak” batean, eta „okerrak” beste batean. Egia bat da, noski. Baiña nekez da osoki biltzen. Intelektualok, egiaren zerbitzutan egoteko, aztertu egin behar dugu eten gabe; eten gabe aldatu behar ditugu gure azalpenak eta iritziak. Zientziak ematen digu alde hortatik jarraipiderik bidezkoena. Ahal dugun neurrian hori izango da gure jokabidea ere: arrazoïnak eta iritziak emango ditugu BRANKA'n, ez sekulan dogmarik edo eskomikurik. Era hortara ideiak azaltzeko gertu diran guziek zabalik dizuzte BRANKA-ren horrialdeak.

Euskaldunen zerbitzutan ari geran ezkerro, biharko Euzkadi'ko erresuma barnetik nola antola ditekean aztertuko dugu. Euskal Herri'ko seme guziek aukera berberak izan ditzaten nahi dugu; eta, hori dala-ta, Euzkadi sozialista bat nahi dugu. Sozialismorik gabe nazioa klase bakar baten ondasuna da. Gure ustez sozialismorik gabe ez litzake egiazko berdintasunik izango euskaldunen artean.

Baiña gobernuaren kritika egin ezin ditekean erresumetan, gobernuko gizonak dira nagusi, eta gaiñerako herritarrak jopu. Gauzak hotzean, eta Kondaira eskuan, aztertu behar dira; ez dogmakeria baten alde itsu-itsuan, edo beste baten kontra porrokatuan. Azken urteetako Kondairak hunela jokatzeari eskatzen du. 1900-arte sozialismoa zeruko amets bat irudi zekiekan batzuei, eta ifernuko lokamuts bat beste batzuei. Gaur sozialismoa Kondairan sartu da; eta 1966-eko urtean, „a priori” ko iritzi horiek oro ez dute funtsik. Gaur ezin diteke sozialismoaz mintza, ez arras alde eta ez arras aurka, antziñan idatzitako iritzi zahar xoillez baliaturik. Liburu sakraturik ez dago, ikasgarririk asko izan arren. XIX-garren mendeko teoriak ikastea beharrezkoa da; kondairan barrena obratu ote diran ikastea, eta zein puntutan oker diran aztertzea, guztiz ere beharrezkoa. Aspaldiko teoriari eta ez besteri begiratzea, mende huntako egiñei ez-ikusia egitea, geldikerian erortzea, ez da nehundik ere zientziazko jokabide bat. Zientziaren araberako bideei ekiteko, egiñak eta Kondaira izendatu be-

har ditugu azken epaikari. Teoriarik zorrotzenak gertakarien galbahean jorratu behar ditugu; eta ez bestaldera, teoria baten zerbitzutan gertakari batzuk, ahaztuz, orraztuz, edo ukatuz. Kapitalismoaren egiñak hor dira. Baiña stalinismoarenak eta bere ondoko hondakiñak ere bai.

Gure herriaren hizkunta euskera da. Alde hortatik euskera hutsez idatzi beharko litzake BRANKA. Baiña atzerritar zapaltzearen ondorioak hor ditugu ere; eta, Euskal Herri'ko seme batzuk gaurkoz arroturik dauden ezkerok, erderaz argitaratuko dugu zenbait artikulu. Bidea „Euzkadi'tik Euskal Herri'ra” baita, eta ez alderantziz.

Euskeraz agertuko dugun parteak, ahalean bederen, euskera osotuan idatziko dugu; euskal „literatura-aurre” ari eta folklore-aroari amaia behin eta betirako eman nahiz.

Onar itzazu, otoi, irakurle horrek, BRANKA-ren agurrik beroenak.

BRANKA-k